


# HIZKUNTZ ESKUBIDEAK: EZAGUTU ETA EUTSI!



# HIZKUNTZ ESKUBIDEAK: EZAGUTU ETA EUTSI

## UNITATE DIDAKTIKOA

Hizkuntz Eskubideen Behatokia Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak sustatutako fundazioa da. Behatokia Euskal Herriko herritarren hizkuntz eskubideez arduratzen da eta eskubide horiek Euskal Herri osoan, arlo publikoan zein pribatuan, bermatzera zuzentzen du bere jarduera. Bestalde, hizkuntz eskubideen edukiak zabaltzen ditu eta bertako hizkuntza erabili eta gizarte alor guztietan garatzeko Euskal Herriko gizarteak duen eskubide gisa defendatzen ditu.

Hizkuntz eskubideen gizarteratzeari dagokionez, Behatokiak egun testu-liburuetan dagoen hutsunea bete nahi izan du unitate didaktiko honen bidez. Behatokiaren iritziz, guztiz garrantzitsua da gaztetxoak hizkuntz eskubideen inguruko nozioez jabeaztea. Euskal hizkuntz komunitatea osatzen duten partaideak izanik, norberaren eta taldearen eskubideak zein diren ezagutu eta baliatu egin behar baitituzte.

Helburu horiek lortu ahal izateko **unitate didaktikoa bost ataletan banatuta** dago:

- 1) Lehenengo atalaren helburua da **munduko hizkuntz aniztasunaz** eta hori deusezten ari **den prozesu globalizatzeaz** ohartaraztea.
- 2) Munduko hizkuntzen egoerari begirada azkar bat eman ondoren, hizkuntza guztiei dagozkien **eskubideak** lantzen dira. Horretarako, gaur egun munduan eta Europan indarrean dauden lege eta printzipioen zertzelada nagusiak aztertuko dituzu.
- 3) Hirugarren atalaren helburua da jadanik barneratutako eskubide horiek **Euskal Herriko legeek** aitortzen dituzten ikustea.
- 4) Gero, Euskal Herriaren euskararen eskubideen defentsan ari den Hizkuntz Eskubideen **Behatokia** aurkezten da: erakunde hau zer den eta zer lan ildo dituen ezagutzea du helburu laugarren atal honek.
- 5) Azkenik, Behatokiak hizkuntz eskubideen urraketak salatzeke duen tresna eraginkorra aurkezten da: **EUSKARAREN TELEFONOA**. Hori erabiltzea du helburu azken atal honek.

Bestalde, ikastunitatearen izaerari dagokionez, ikasleek bizi dituzten **egoera errealak** hartzen ditu oinarritzat eta edukiak **modu didaktiko eta mailakatuan** lantzen dira; gainera, **ikasleen aurre-ezagutzetatik** abiatzen da eta horien **inplikazioa lortzeko** estrategiak lantzen dira.



Atal bakoitzak honako egitura du:

- Hasieran landuko diren **HELBURUAK** aurkezten dira eta bukaeran ikasitakoa gogorarazten da **ORAIN BADA KIZU** izeneko arloan.
- Bi atal hauen artean, ikasi beharreko edukiak ariketa eta teoria bitartez **JAKIN/BA AL ZENEKIEN...** lantzen dira. Ariketa bakoitzaren izenburuan ariketaren funtsa adierazten da; hau da, **AURKITU**, **HAUSNARTU** izenburuek adierazten dute ariketan zer egin behar duten. Laburbilduz, hauxe da atal bakoitzak duen egitura:

- **HELBURUAK**
- **ARIKETAK: HAUSNARTU, ENTZUN...**
- **EDUKIAK: JAKIN/ BA AL ZENEKIEN...**
- **ORAIN BADA KIZU**

Honez gain, atal bakoitzaren amaieran **GEHIAGO JAKITEKO...** izeneko atal bat dago: atal honen bitartez irakasleak aukerako informazio osagarria eta ariketa gehiago izango ditu klasean lantzeko.

